

## 5. gaia

### Sintaxia

1

### Sintaxia

- Sintaxia hitzen konbinaketa da, unitate nagusiagoak osatzeko: sintagmak eta esaldiak.

2

### Sintaxia

- Hitzak bi mota edo kategoriakoak dira:
- - Kategori lexikalak
  - Kategori funtzionalak

3

### Sintaxia

- Kategori lexikoak:

Esanahi lexikoa dute. Objektuak, animaliak, pertsonak, kontzeptuak, gertaerak, egoerak, ezaugarriak, adierazten dituzte.

Izenak, aditzak, adjektiboak, adberbioak.

4

### Sintaxia

- Kategori funtzionalak:

Esanahi ez-lexikoa, ez-denotatiboa. Ez dituzte objektuak, animaliak, pertsonak, kontzeptuak, gertaerak, egoerak, ezaugarriak, adierazten.

Funtzio gramatikala dute, kategori lexikoen ezaugarriak adieraztea (generoa, numeroa, espezifikotasuna, kasua, pertsona, denbora, aspektua, modua, etab.)

Determinatzaileak (artikuloak, erakusleak), zenbatzaileak (asko, gutxi, batzuk, guztiak, hiru, lau, etab.), konplementatzaileak (-la, -na, -en, -ean, -lako, etab.), aditz laguntzaileak, juntagailuak.

5

### Sintaxia

- Sintaxiaren ezaugarri bat: **proiekzioa**.

Hitzek beraien kategoriako sintagmak proiektatzen dituzte. Nukleo sintaktikoak dira.

Izena -> Izen Sintagma

Adjektiboa -> Adjektibo Sintagma

Aditza -> Aditz Sintagma

Adberbioa -> Adberbio Sintagma

Preposizioa -> Preposizio Sintagma

6

## Sintaxia

- Teoria formalistetan (gramatika sortzailean), kategori gramatikal edo funtzionalek ere sintagmak proiektatzen dituzte.
- Kategoría horiek dauzkaten ezaugarri morfosintaktikoak sintagmetara proiektatzen dira. Adib.:

Determinatzaileek 'erreferentziala/ez-erreferentziala' edo 'mugatua/mugatugabea' markatzen dute.

Aditz flexiozko kategoriek pertsona, denbora, aspektua, modua, etab. adierazten dute.

7

## Sintaxia

Determinatzailea -> Determinatzaile Sintagma

Zenbatzailea -> Zenbatzaile Sintagma

Konplementatzailea -> Konplementatzaile Sintagma

(Aditz) Flexioa -> (Aditz) Flexio Sintagma

8

## Sintaxia

IS	AdjS	AS	AdbS	PrepS
----	------	----	------	-------

--	--	--	--	--

I	Adj	A	Adb	Prep
---	-----	---	-----	------

DS	KonpS	ZenbS	FlexS
----	-------	-------	-------

--	--	--	--

D	Konp	Zenb	Flex
---	------	------	------

9

## Sintaxia

- Nukleoek, buruek osagarriak hautatzen dituzte.

Adib.: aditz iragankorrak. Osagarriak behar dituzte.

Baina beste nukleo edo buru sintaktikoek ere osagarriak behar dituzte.

10

## Sintaxia

- Determinatzaileak:

Ez dira izenaren laguntzaile sinpleak. Izenarekin batera osatzen den sintagmak determinatzaileak dakartzan erreferentzialitate eta espezifikotasun ezaugarriak ditu.

*Liburua* (erreferentziala, mugatua)

*Liburu bat* (erreferentziala, mugatugabea)


11

## Sintaxia

- Nukleo edo buru batek bere tasun morfosintaktikoak proiektatzen baditu sintagman, determinatzaileak Determinatzaile Sintagmaren nukleoak edo buruak dira.
- Determinatzaileak Izen Sintagmak hartzen ditu osagarri bezala.

12


## Sintaxia



13

## Sintaxia

- Preposizio batek Determinatzaile Sintagma bat hartzen du osagarri bezala.



14

## Sintaxia

- Konplementatzaileak:

Menpeko esaldi bateko buruak dira. Esaldi mota adierazten dute (konpletiba, erlatibozkoa, denborazkoa, zergatizkoa, moduzkoa, etab.). Beraiek gabe, ezin da perpausa sartu.

*Jonek bere lagunak bihar etorriko direla esan du.*  
*Juan dice **que** sus amigos vendrán mañana.*

Konplementatzaile Sintagma bateko buruak dira, menpeko perpausa osagarri bezala hartzen dutenak.

15